

Arartekoak dio Lesakako eta Berako liburuzainek euskaraz jakin behar dutela

ERREDAKZIOA. IRUÑEA

Nafarroako Arartekoaren iritziz, Beran eta Lesakan liburuzain lanpostuan aritzeko beharrezkoa izan beharko luke euskaraz jakiteak. Edo bestela, merezimendu kualifikatu moduan baloratu beharko litzateke. Nafarroako Gobernuak urte hasieran egin zuen liburutegietako arduradunen lanpostuak betetzeko deialdia, tartean Berako eta Lesakako liburutegietakoak. Eta, deialdi horren arabera, lanpostu horietan aritzeko ez da beharrezkoa euskaraz jakitea, eta hizkuntza hori jakitea ez da meritu gisa baloratu ere egingo.

Erabaki horren aurka hainbat helegite jarri zituzten, eta sinadura bilketa bat ere egin zuen Bortzirietako Euskara Mankomunitateak. Sinadura horiek guztiak bildu eta Nafarroako Gobernuari nahiz Arartekoari helarazi zizkieten. Bere erantzunean, Arartekoak gogorarazi dio gobernuari euskararen foru legea bete behar duela. Nolanahi ere, Arartekoarenak gomendioak dira, eta ez dute izaera bete beharrekorik administrazioarentzat.